18. A. Intzaren euskaltzain - sařera Elizondon, Urtařilaren 27-an izan dedila.

19. Iztegia atontzeko izentautako Batzořdeak, batzaldurik, auřerako daukazan asmoak auřkeztu daizala.

20. Henry Gavel - ek, Toulouseko Goikasguan asiera emongo dautsan ikastarora norbait bialdu al izateko, Eusko - Ikaskuntzaren Batzořde-Egintzariari iru ilebeteko bizi-sariak eskatu.

---

**Elizondo'n, Udaletxeko areto nagusian, 1921 ko Ilbeltza'ren 27'an, goizeko 1o'an.**

Alde auřetik iragařitako Batzařaldia, Intza - tař Damaso aita Euskaltzaindian sař erasteko, Elizondoko Udaletxean, gauř egin da. Asierako otoitz ostean, Euskaltzainburu Azkue yauna maipuru zalarik, bere aldamenaz Elizondo bertako Udalburua, alkitan ixiri ziran Olabide, Landeřetxe, Eguskitza, Intzagarai, euskaltzañak, Intza ta Lakonbe, aukeratuak, ta Aita Ařigarai, Ařburua ta Etxepare uřgazleak.

Azkue yaunak, gela-nagusian zeuden napařtařai aguř estitsu bat egin ziyen, adieraziyaz gañera, zeřtarako zan batzařaldia, ta ondoren yaiki zan Intza'tař Damaso yauna bere sařerako itzaldia esatera. Gogoz eta ařduraz entzun zitzayon, edeř ta gain-gañeko itzaldia zekařen-da, aitatuaz Napařoan euskerak darabiltzkien bereizpenak.

Itzaldi onitxe, Aita Olabidek beste batez erantzun

ziyon, zakon da egoki, aita onek dakiyen ta oi duen bezela; ta auřez zeuzkan euskaldunek sutsu itzuli zituan, euskeraganako maitasuna eren biyotzetan ixiotuaz.

Ondoren, Euskaltzainburuak euskaltzain beřiyari, ezautalua lepotik ezaři ziyon, zorionak ta uřte luzaroko biztaldia opaturik, berau gozo laztandu-ta. Beste euskaltzañat ainbet egin ziyoten.

Besterik gabe, oizko otoitzaz, batzařaldia amaitu zan.

---

**Lekarotz'en, Lekaidetxean, 1921'ko Ilbeltza'ren 27'an, ařatsaldean.**

Agerika geřtu zan, beřtan salatu zitezen napařtařak euskera batasunatzaz zeukazketen aburu ta iritxiyak.

Azkue yauna maipuru, aldamenaz Aita Eusebio Azpilgoeta Lekaideburua, Olabide, Eguskitza, Landeřetxe, Intza, Intzagarai, euskaltzañak, alkitan.

Aita Ařigarai ta Ařburua uřgazleak antxen zeuden.

1. Azkue yaunak euskal - izkizaz erderaz itzegin zuan, *erderaz* noski, beraren iritxiz, ořela obego zetořkiyolako, itz bereziz oraindik zurtz dagon lan ořetxeri.

2. Donostiko Koruko Andre Mariaren Irakaskintzak Euskaltzaindiyari, idaztiño batez, eskeřak dagerzkiyo, bere arazotarako sorozpidea agindu diyolako.

3. «Comisión Provincial de Gipuzkoa» deitzen dan batzaren idazki bat irakuŕi zan.

4. Iruña-ko Gotzain yaunarena, adierazoaz, ezdala aztukoŕ Euskaltzaindiaren bidez agindutako gauzetan.

5. Azkue yaunak Hugo Schuchardt yaunari egin ziyon idazkiya beraŕek irakuŕi zuan. Idazki ontan esaten zitzayon, Euskaltzaindiyak bere lepotik aŕgitaratu lezazkikela bere lan batzuek, alpidez uŕi bazebil̄en; Schuchardt yaunak ez du ezer erantzun.

6. Azpaŕengo Ikastetxe-Buruzagiak Euskaltzaindiari beste eskutitz bat digoŕkiyo. Onetzaz erabaki da, Euskaltzaindia Azpaŕenera dijoanean, aŕpegiz-aŕpegi egingo dirala gai onen itunbenak.

7. *Toponimia.* — Tokizentzaren lanak Iruñako apaizgai Albistuŕ-taŕ Bitoŕi egoztea erabaki da, Napaŕoako alderdiyan lan oni dagokiyonatzako.

8. Eskeŕak ageŕtu Elizondoko Udalari, ain aŕera ona egin diyolako Euskaltzaindiari Ta

9. Eskeŕ berezi bereziyak Lekarozko Lekaideburu ta Lekaide guziyari eman beaŕ zaizkiye, Euskaltzaindia beren berezko senide ta guraso bezela adeitu dutelako.

---

Euskera batasunatzazko txosten bidean, txosten bat bakaŕa azaldu zan: auxe Joan Kurutze Goyenetxe Amayur-ko apaizarena.

Berak irakuŕitakoan diyo:

1. On litzakela, euskalki guziyak eren adoretan biziaraztea.

2. Euskeraren batasuna lan zaḷa dala.

3. Batasuna eragiteko, buru gogoŕak gerala euskaldunok.

4. On litzakela, euskalkiak dagozen eran ustea, txoko guzitako esakizun politak baŕeyatu ditezen.

Ondoren, Euskaltzaindiak, oiturazko otoitzez, batzaŕaldia amaitu zuan.

---

**Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1921 'ko Otsaiḷa'ren 24 ta 25'an.**

Batzaldu zirean: Azkue, Kanpion, Olabide, Intza, Landeŕetxe, Intzagarai, Eguskitza, Eleizalde ta Altube euskaltzaiñak ta Lakonbe euskaltzain aukeratua; Belaustegigoitia uŕgazlea auŕean zala.

Ona emen artu zirean erabagiak:

1. Durangon, Uztaiḷaren azken-inguruan Iru-lau eguneko euskal-jaiak Euskaltzaindiak ospatzea. Jai onek bi urtetik bi urtera, Eusko-Ikaskuntzak ospatzen eztauzan urteetan izango dira. Aurtengoak Bizkaiko uri batean izatea erabagi zan.

2 Bizkai - Aldundiko *Junta de Cultura Vasca*'ren eskabideai erantzuteko ardurea Azkue eta Eleizalde jaunak artu beie.